

# LAN-POLTSETARAKO PROBEN OINARRIAK

EI

“Kiroletako D Erredaktore-Lokutorea”

2021



## **XEDEA**

---

Aldi baterako langileak lan-poltsan sartzea arautzen duen erregulazioak bi helburu ditu:

- ☐ Erakundea sortzeko Legean jasota dauden eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak ikuskatzen dituen publizitate- eta merezimendu-printzipioak bermatzea. Horretarako, EITBn kontratatzen diren aldi baterako langile guztientzako poltsa ordenatu bat ezarri behar da.
- ☐ Dagoen lan-poltsa handitzea, izangai berriak barne, dauden beharrak asetzeko.

Hori dela eta, gaur egun kontratatuta dauden aldi baterako langileek eta kanpoko izangaiek osatu ahal izango dituzte lan-poltsak.

## **SARRERA**

---

Deialdi honen bitartez, Eusko Irratiko negozio-unitateko “Kiroletako D erredaktoreak- lokutoreak” behin-behinean kontratatzeko lan-poltsa barematua elikatu nahi da. Lan-poltsa horretatik ateratzen diren izangaiek lehentasuna izango dute aldi baterako kontrataziorako, deialdiaren ondorioz duten azken ordenaren arabera, baina, betiere, lanpostu horietarako iraganean egindako edo etorkizunean egingo diren lan finkoko deialdi publikoetatik eta poltsa hauetarako probak baino lehen egindako lan-poltsen deialdietatik eratorritako lehentasunezko lan-poltsetan agertzen direnen ondoren.

Lan-poltsaren deialdi honen emaitzak baliozkoak izango dira EI enpresaren "Kiroletako D erredaktoreak-lokutoreak" lanpostuko aldi baterako kontratazio-beharrak asetzeko bakarrik, eta ez dute inolako ondoriorik izango plantillan finkotasuna eskuratzeko orduan.

Lan-poltsa honen baremazioa egiteko, horretarako egiten diren hautaprobeen emaitzak hartuko dira kontuan, oinarri hauetako “Kontratazioa” epigrafean ezarritako irizpideen arabera.

## IRISMENA

---

1. Kiroletako D erredaktore-lokutoreak

## DEIALDIA ARGITARATZEA

---

Deialdia eta egutegia EiTbren webgunean argitaratuko dira (<https://www.eitb.eus/eu/eitb-taldea/lan-poltsa/>), eta horren bidez kudeatuko dira hautaketa-prozesuari buruz izangaiei egiten zaizkien jakinarazpen guztiak.

## DEIALDIAN IZENA EMATEKO PROZEDURA

---

Lan-poltsarako probetan parte hartzeko beharrezkoa izango da:

- Hautagaitza behar bezala inskribatzea EUSKAL IRRATI TELEBISTA erakunde publikoaren webgune korporatiboko formularioaren bidez (<https://www.eitb.eus/eu/eitb-taldea/lan-poltsa/>), oinarrietan deskribatutako baldintzen arabera.
- Dagokion dokumentazioa honako helbide honetara bidaltzea posta ziurtatu bidez edo postaz baina hartu-agiriarekin:

**Norentzat: Hautaketa Saila, EITB egoitza**

**Basurtuko Kaputxinoen kalea 2**

**48013 Bilbao, Bizkaia.**

Beste edozein bidetatik jasotako eskabideak ez dira onartuko. Halaber, baztertu egingo dira oinarrietan eskatzen diren betekizunak betetzen ez dituzten hautagaitzak. Betekizunak dokumentazioa aurkezteko azken egunean bete beharko dira, hau da, 2021eko uztailaren 19an.

**Eskabideak** aurkezteko epea 2021eko ekainaren 15ean hasiko da eta 2021eko uztailaren 7an amaituko da, bi egun horiek barne.

Egiatagiriak eta dokumentuak aurkezteko epea 2021eko ekainaren 15ean hasiko da eta 2021eko uztailaren 19an amaituko da, bi egun horiek barne.

Izena eman ahal izateko, izangaiak lan-poltsarako proben deialdi honen oinarrietako baldintzak irakurri eta onartu behar ditu.

## **LANPOSTUAREN PROFILA**

---

Irrati-difusioko profesional bat da, eta bereak zaizkion ezagutzekin informazioa biltzen, prestatzen eta eraldatzen du kiroletako mota guztietako irrati-espazioetan idatziz edo ahoz erabili dadin. Gainera, aurkezlea izateko zein kiroletako emankizunak eskaintzeko gai izango da.

Espazio soilen errealizazioaz arduratu ahal izango da (kirol-kronikak, kirol-programak, orduko albistegiak eta abar).

Dagozkion zereginei lotutako ekoizpen- eta edizio-lanak egingo ditu.

Lan egiteko beharrezkoak diren ordenagailuko terminalak eta periferikoak zein maiztasun txikiko ekipamenduak erabiltzen eta maneiatzen jakin behar du, eta dakiena aplikatu. Bestalde, zereginetarako behar dituen teknikarien koordinazioaz arduratu ahal izango da.

## **PROBETARA AURKEZTU AHAL IZATEKO BETEKIZUNAK**

---

1. NANA indarrean edukitzea
2. Titulazio hauetakoren bat izatea eskatuko da:
  - Unibertsitateko Kazetaritza Gradua
  - Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazioko Gradua
  - Unibertsitateko Publizitateko eta Harreman Publikoetako Gradua
  - Antzeko titulu homologatua
3. Europako Erreferentzia Markoko C1 titulua edo titulu altuago bat eduki behar da, edo Europako Erreferentzia Markoko C1 mailako proba gainditu, oinarri hauetako egin beharreko proben atalean deskribatzen den moduan.

4. B motako gidabaimena eduki beharko da.
5. Lortu nahi den lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzearekin bateraezinak diren muga fisiko edo psikikorik ez izatea edo horren eraginpean ez egotea, hargatik eragotzi gabe desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren testu bategina onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuan xedatuta dagoena.

Desgaitasuna duten pertsonen alde enplegua gordetzeko printzipio gidariak eta desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren testu bategina onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren 42.1. artikuluan xedatutakoa betetze aldera, desgaitasuna duten pertsonak bete beharreko kupo bat gordeko da lan-poltsarako probetan, gaia arautzen duen araudian ezarritako baldintzetan.

Lehenengo xedapen gehigarriarekin bat etorritik, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 59. artikuluan, desgaitasuna duten pertsonen buruzkoan, ezarri da enplegu publikoaren eskaintzetan bete beharreko lanpostuen ehuneko zazpiko kupo gordeko dela gutxienez desgaitasunen bat duten pertsonen bete dezaten.

Desgaitasunen bat duten pertsonentzat gordetako plazak eskuratu nahi izanez gero, deialdian parte hartzeko eskabidean adierazi beharko da. Horrela, deialdia egiten den unean, izangaiak desgaitasuna duela adierazi eta egiaztatu beharko du. Horretarako, Lan Ministerioan erakunde duten organoek xede horretarako hautaketa-proben aurretik igorritako ziurtagiria erabili ahal izango da edo, kasuan kasu, eskumena duen autonomia erkidegoak edo aldundiak igorritakoa.

Era berean, lan-poltsako probetatik ateratzen diren pertsonen nahitaezko mediku-azterketa gainditu beharko dute.

## EGIN BEHAR DIREN PROBAK

---

Izangaiak, hala dagokien kasuetan, hizkuntzei buruzko proba hauek edo proba tekniko hauek egin beharko dituzte:

### 1. Hizkuntza-probak

Lan-poltsara aurkezten den izangaiak euskaraz duen hizkuntza-gaitasuna ebaluatuko da, eta proba bakoitzerako GAI edo EZ-GAI kalifikazioa emango zaio.

Europako Erreferentzia Markoko C1 Euskara maila ezinbesteko baldintza izango da prozesuan onartua izateko. Beraz, onartuen behin betiko zerrendan egoteko eta, ondorioz, prozesuko proba teknikoak egin ahal izateko, C1 Euskara-maila egiaztatu beharko da, titulua aurkeztuta edo onartuen behin betiko zerrenda argitaratu aurretik EITBk egingo duen hizkuntza-proba gaindituta.

Europako Erreferentzia Markoko euskararen C2 proba ez da nahitaezkoa izango, ezta baztertzaila ere. Dena den, ezinbesteko betekizuna izango da irрати-marka batzuetan zerbitzuak eman ahal izateko, oinarri hauetako *Kontratazioa* atalean garatu den bezala.

#### C1 euskara-proba.

Europako Erreferentzia Markoko C1 maila. Europako Erreferentzia Markoko euskararen C1 titulua edo titulu altuago bat edukitzeko eskatuko da. Europako Erreferentzia Markoko euskararen C1 titulurik ez duten kasuetan, izangaiak maila egiaztatzeko egingo den proba gainditu beharko da, zeina prozesuan parte hartzeko egingo den.

Proba GAI edo EZ-GAI gisa baloratuko da, proba egiteko ardura duen erakunde ofizialak ezarritako irizpideen arabera.

Era berean, poltsako proba hauetako hizkuntza-gaitasunaren ebaluazioan GAI lortzeak ez du esan nahi ofizialki homologatutako titulurik edo maila ofizialik egiaztatu denik.

Proba egin ondoren, probaren behin-behineko emaitzak argitaratuko dira dagokion webgunean ((<https://www.eitb.eus/eu/eitb-taldea/lan-poltsa/>), eta izangaiak 3 egun balioduneko epea izango du egokitatz jotzen dituen erreklamazioak egiteko.

## 🔗 C2 euskara-proba.

Europako Erreferentzia Markoko C2 maila. Egiaztatzeko, Europako Erreferentzia Markoko euskararen C2 titulua eduki beharko da. Europako Erreferentzia Markoko euskararen C2 titulurik ez duten kasuetan, izangaiak maila egiaztatzeko egingo den proba gainditu beharko da.

Proba GAI edo EZ-GAI gisa baloratuko da, proba egiteko ardura duen erakunde ofizialak ezarritako irizpideen arabera.

Era berean, poltsako proba hauetako hizkuntza-gaitasunaren ebaluazioan GAI lortzeak ez du esan nahi ofizialki homologatutako titulurik edo maila ofizialik egiaztatu denik.

Proba egin ondoren, probaren behin-behineko emaitzak argitaratuko dira dagokion webgunean (<https://www.eitb.eus/eu/eitb-taldea/lan-poltsa/>), eta izangaiak 3 egun balioduneko epea izango du egokitzen jotzen dituen erreklamazioak egiteko.

## 2. Proba teknikoa

Haztatzeke, gehienez ere, 100 puntu aplikatuko dira, ezarritako irizpideekin bat etorriz. Nahitaezkoa eta baztertzaila izango da.

Proba tekniko osoa gainditu dutela joko da, baldin eta izangaiek probaren puntuazioaren erdia edo osoa lortzen badute, eta, betiere, gutxieneko puntuazioa lortzen badute (erdia) jarraian adierazi diren kasu praktiko guztietan:

1. **Albiste bat prestatu** teletipo bat erabiliz. Albistea euskaraz eta gaztelaniaz idatzi behar da. Albiste hori idatzizko formatuan aurkeztuko da, eta gutxienez 70 hitz izango ditu.

Edukiak kazetaritza-garrantziaren arabera antolatzeke gaitasuna baloratuko da, EITBren Estilo Liburuari jarraikiz, bai eta ortografia-zuzentasuna ere.

Haztapenari dagokionez, 20 puntu emango dira, gehienez ere.

2. **Emankizun bat egitea, 3 minutukoa gutxienez.** Horretarako, emankizunari buruzko bideo editatu bat eskainiko da. Proba euskaraz eta gaztelaniaz egin behar da.

Lokuzioaren jariakortasuna, emozioak transmititzeko gaitasuna eta gaiari buruzko ezagutza baloratuko dira.

Haztapenari dagokionez, 40 puntu emango dira, gehienez ere.

### 3. Elkarrizketa egitea.

Kazetaritza-generoa modu egokia erabiltzea baloratuko da, bai eta kirolariari edo gaiari buruzko ezagutza ere. Entzunarentzat elkarrizketa erakargarria izatea eragingo duten askotariko elementuak eta ortografia-zuzentasuna.

Haztapenari dagokionez, 40 puntu emango dira, gehienez ere.

Proba egin ondoren, probaren behin-behineko emaitzak argitaratuko dira dagokion webgunean (<https://www.eitb.eus/eu/eitb-taldea/lan-poltsa/>), eta izangaiak 3 egun balioduneko epea izango du egokitzen jotzen dituen erreklamazioak egiteko.

## EMAITZAK

---

Egin beharreko proba guztiak amaituta, izangaiak proba baztertzailak gainditu baditu, proba teknikoaren puntuazio osoa zenbatuko da. Emaitzak baloratzeko, 100 puntu emango dira gehienez ere.

Izangaiak proba tekniko osoa gainditu dutela joko da, baldin eta proba osoaren puntu guztien erdia edo gehiago lortu badituzte, betiere, proba osatzen duten kasu praktiko guztietan gutxieneko puntuazioa lortu badute (puntuazio erdia).



## KONTRATAZIOA

---

Proba osoa gainditzen dituzten izangaiak automatikoki sartuko dira Kiroletako D erredaktorea-lokutorea izateko lanpostuaren lan-poltsa barematuan, beheranzko hurrenkeran, eskuratutako behin betiko emaitzei jarraikiz. Lan-poltsa aldi baterako kontratazio guztiak egiteko erabiliko da, modalitatea edozein izanda ere.

Kiroletako D erredaktorea-lokutorea izeneko lan-poltsa bakarra izango da, eta honako talde hauek osatuko dute, lehentasun-hurrenkera honetan:

1. EDPak, beheranzko hurrenkera kronologikoan (berrienetik zaharreneira)
2. 2014 EDP (elebakarrak)
3. Lan-poltsarako probak, goranzko hurrenkera kronologikoan (zaharretik berrienera).
4. V. taldea

Lehentasun-hurrenkera deialdiaren oinarrietan zehaztutako proba edo deialdietan lortutako notaren arabera izango da.

Beraz, proba hori gainditzen duten izangaiak lan-poltsaren hirugarren taldean sartuko dira, eta lehentasuna izango dute enplegu publikoaren azken deialdian eta enplegu publikoaren azken-aurreko deialdian dagozkion probak gainditzen dituzten edo gainditu dituzten izangaiak, bai eta elebakarrak eta alde zuzenetik egin diren proben prozesuetako izangaiak ere.

Hala eta guztiz ere, prozesuan egiaztatutako euskara-mailaren arabera, eskatzen den hizkuntza-betekizunen arabera zerbitzuak eman ditzakeen irrati-markan kontratu ahal izango da izangaia.

Euskarari dagokionez, hauexek dira irrati-etxeetarako eskatu daitezkeen gutxieneko hizkuntza-betekizunak:

- Radio Euskadi: C1.
- Radio Vitoria: C1.
- Euskadi Irratia: C2.
- Zeharkakoa (irradi-marka guztiak): C2.

Lan-poltsa honen osaera eta lehentasun-hurrenkera gertakari hauetakoren bat gertatu arte egongo dira indarrean:

- Etorkizuneko enplegu-deialdi publikoak
- Etorkizuneko lan-poltsetarako probak

Hautatu nahi dituzten lanpostuetako zeregin guztiak egitea eragozten dien % 33ko edo gehiagoko desgaitasun funtzionalaren ziurtagiria aurkezten duten pertsoneri dagokienez, haiek kontratatzearen alde egingo da, eta honako hau egingo da, hain zuzen ere: geratzen diren hurrenkeraren arabera deituko zaie, eta egiten diren 25 kontratatatik gutxienez 2 desgaitasuna duten pertsoneri egingo zaizkie. Haiek, aldi berean, egoera hori egiaztatu beharko dute eskumena duen organoak igorritako ziurtapenaren fotokopia konpultsatuaren bitartez, non desgaitasuna eta desgaitasunaren maila zehaztuko diren.

Era berean, lan-poltsaren zerrendak EITBren webgunean argitaratuko dira, eta ETBko lanpo-poltsaren araudian ezartzen diren pertsonetik ikusi ahal izango dituzte.